



**QUAND VIENT L'AUTOMNE (UDAZKENA IRISTEN DENEAN) • Frantzia**  
Françoise Ozon (zuzendaria)  
Hélène Vincent, Josiane Balasko, Ludivine Sagnier eta Pierre Lottin (antzezleak)



François Ozon zuzendaria betaurrekoekin, Pierre Lotin, Josiane Balasko, Hélène Vincent eta Ludivine Sagnier aktoreekin batera.

ALEX ABRIL

## Ozon: “Ikusleen adimenaren aldeko apustua egin dut”

SERGIO BASURKO

Duela hogeit urte baino gehiago *Sous le sable* filmarekin etorri zen lehenengoz Donostiara François Ozon zinemagile frantziarra. Harrez gero, bere filmografia luzeko pelikula gehienak ekarri izan ditu Zinemaldira, atzo Sail Ofizialeko lehian aurkeztutako *Quand vient l'automne* azkena delarik. Oraingo honetan familiako harremanen toxikotasunaren azterketa sotil batekin itzuli da, prostituta gisa iragana duten adineko bi emakumeren eta beren seme-alaben istorioaren bidez.

Michelle sasoi betean dagoen emakumea da, erretiro lasaia bizi duena Borgoinako herrixka batean; Marie-Claude—bere lagunik onena—ere hor bizi da. Valérie—bere alaba—

etorriko zaio ikustera, Lucas biloba eskola-oporretako aste osoan uzteko asmoz. Gero gertatzen den guztiak zorigaitzaren ondorio dirudi (basa-perretxiko toxikoak prestatzen ditu), baina zalantzaren itzala hazi egiten da eta, bere horretan jarraituko du baita filma amaitzen denean ere.

Pierre Lotin, Josiane Balasko, Hélène Vincent eta Ludivine Sagnier aktoreekin batera agertu da Ozon prentsaren aurrean, eta azaldu duenez, “batzuetan akatsak egiten ditugu omisioagatik. Batzuetan baliagarria da egia ez jakitea. Ikuslearen adimenaren aldeko apustua egin dut” elipsiaz beteriko trama garatzeko. “Bizitzan gauzak gaizki interpretatzen ditugu eta horretaz urteen buruan konturatzen gara”.

Familia gatazkez eta isilpean gordetzen diren kontuen toxizitateaz dihardu Ozonek filmean. “Bi emakume hauek arazoak dituzte euren seme-alabekin, eta niri interesatzen zitzaidan erakustea garrantzitsuena gu sortuz goazen familia hori dela, eta ez odol loturek dakartena”. ziurtatu du.

Ozonen ‘udazkeneko’ filma urtaro hura hasten den egunean aurkeztu da, hain zuzen ere, eta adierazi duenez, adineko emakumeen pertsonaiak “zineman ikusezin bihurturik daude eta protagonismoa eman nahi nien”, eta hori eskertu diote Balaskok eta Vincentek.

Bi antzezleak euren pertsonaiez hitz egin dute. Hélène Vincentek proposamena iritsi zitzaionean “izugarri hunkitu” zela esan du, “ez baita ohikoa

horren rol sotila eskaintzea jada gaztea ez zarenean. Oso gutxitan gertatzen da. Adin bat duzunean, ematen du ez duzula ezer kontatzeko, baina Françoissek badaki gazteekin eta adinekoekin lan egiten, bideak irekitzen ditu gu guztiontzat”, adierazi du.

Bere aldetik, Balaskok Ozonen oso zalea dela eta “zerbait idatzi dut eta paper bat daukat zuretzat” esan zionean “ederki, egin dezagun, aurrera” besterik ez ziola erantzun azaldu du. “François arriskatu egiten da, generoak eta estiloak aldatzen ditu eta Marie-Clauden pertsonaiak, adibidez, tragedia klasiko bati jarraitzen dio. Françoissek ez zigun ezer argitzen, guk pertsonaiek zituzten zalantza berberak genituen”, argitu du.

Eta zalantza horiekin geratuko dira baita ikusleak ere.

### Challenging stereotypes around elderly women in cinema

The French director François Ozon is back at the Festival with *When fall is coming*, a subtle study of the toxic nature of family relations that tells the story of two elderly women and their children who cannot come to terms with their mothers' past as prostitutes.

Ozon appeared before the press yesterday alongside the actors Pierre Lotin, Josiane Balasko, Hélène Vincent and Ludivine Sagnier, and explained that “sometimes you make mistakes in your life because you misinterpret a situation and it’s only 10 years later that you realise you were wrong. Sometimes you decide not to know. You prefer to sweep things under the carpet.”

The French filmmaker also once again addressed the subject of grief, something that he had already dealt with in *Under the sand* which he presented at the Festival 20 years ago: “I’m interested in how we are able to bear the disappearance of our loved ones.”

Ozon, whose “autumnal” film was screened on the very day that this season began, stressed that he wanted to challenge stereotypes around elderly female characters “who are under-explored in cinema and I wanted to have them at the centre of things. It was important to make a film with the leads as old actresses, because too often they are just a caricature.”

Proudly powering San Sebastián International Film Festival



Arts Alliance Media

SSIFF  
Donostia Zinemaldia  
Festival de San Sebastián  
International Film Festival